Código de validación/*Balidazio kodea*
3P25123O1S3A0L1A0FHB

AYUNTAMIENTO DE ERMUA/ERMUKO UDALA
Fecha/Data 18-06-2024
Num./Zk. PLE/11/52/2024

*Honako hau egin da aditzera emateko Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2024ko ekainaren 18an egindako Ezohikoa bileran, korporazio-kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, besteak beste, jarraian idatzitako erabakia hartu zuela:*

Se extiende para hacer constar que, por el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria de fecha 18 de junio de 2024, por mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, entre otros, se adoptó el acuerdo que a continuación se transcribe:

*Aztertu da IDESA enpresak hartzen duen eremuari dagokionean Ermuko HAPOaren aldaketa bat onesteari buruz MALLABIER 2011 SL enpresaren eskariz bideratutako prozedura, eta emandako udal-txostenen arabera, honako ERABAKI hau hartu da:*

***LEHENENGO***. *Ermuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 3. aldaketa puntuala, IDESA enpresak Gipuzkoa Etorbideko 15ean hartzen duen orubearen erabilera industriala (OR-7 bizitegi-erabilerakoa ez dena) bizitegi-erabilerara aldatzeari buruzkoa, hasiera batean onestea eta Ingurumen Azterlan Estrategikoarekin batera 45 egun baliodunez jendaurrean jartzea. Erabaki hori ingurumen-txosten estrategikotik ondorioztatzen denaren baldintzapean hartzen da.*

***BIGARRENA.*** *Hirigintza-dokumentua jendaurrean jartzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, lurraldean zabalkunderik handiena duen egunkarian eta udalaren egoitza elektronikoan iragarkiak argitaratuz, interesa duen edonork, 45 egun balioduneko epean, egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzan. Plangintza-dokumentuak Ingurumen-Azterlan Estrategikoa biltzen du, eta hori ere jendaurrean egongo da epe horretan. Aipatutako dokumentazio guztia udalaren*

Examinado el procedimiento instruido a instancias de la mercantil MALLABIER 2011 SL, relativo a la aprobación de una modificación del PGOU de Ermua, en el ámbito ocupado por la empresa IDESA y de conformidad con los informes municipales emitidos, se adopta el siguiente ACUERDO:

**PRIMERO.** Aprobar con carácter inicial la 3ª modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Ermua, relativa al cambio de uso de industrial (OR-7 edificación no residencial) a residencial, del solar que ocupa la empresa IDESA en la Avda. Gipuzkoa nº 15 y someterlo conjuntamente con el Estudio Ambiental Estratégico a información pública por plazo de 45 días hábiles. Dicho acuerdo se adopta de manera condicionada a lo que resulte del informe ambiental estratégico.

**SEGUNDO.** Someter el documento urbanístico a exposición pública mediante la publicación de anuncios en el Boletín Oficial de Bizkaia, en el diario de mayor difusión del territorio, así como en la sede electrónica municipal, para que cualquier persona interesada pueda presentar las alegaciones que tenga por oportunas, en el plazo de 45 días hábiles. El documento de planeamiento contiene el Estudio Ambiental Estratégico, el cual se expone al público por dicho plazo.

*web orriko (www.ermua.eus) iragarki-taulan ere eskuragarri egongo da.*

Toda la documentación señalada estará también disponible en el tablón de anuncios de la página web municipal (www.ermua.eus).

***HIRUGARRENA.*** *Hasierako onespena sektore ezberdinetan eskumenak dituzten herri-administrazioei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta egoki irizten dituzten txostenak egin ditzaten.*

**TERCERO.** Notificar la aprobación inicial, para su conocimiento e informe, a las Administraciones Públicas con competencias sectoriales, al objeto de que emitan los informes que consideren oportunos.

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *EH Bildu: Kontrakoak 2* | EH Bildu: En contra 2 |
| *PP: Abstenzioak 2* | PP: Abstenciones 2 |
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 6* | PSE-EE/PSOE: A favor 6 |
| *Elkarrekin Ermua: Abstenzioak 2* | Elkarrekin Ermua: Abstenciones 2 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 3* | EAJ/PNV: A favor 3 |

Fdo./Sin.:
Secretario/Idazkaria
Daniel Salazar Irusta
19-06-2024 11:49